



2012ko urteko txostena

Gaztempresa
FUNDAZIOA

LABORAL 
kutxa

Sortzailea



EAEko finantzatzaileak



Con la colaboración del Departamento de Justicia, Empleo y Bienestar Social del Gobierno Vasco y del Fondo Social Europeo, a través del Programa Operativo de Empleo Competitividad y Empleo 2007-2010



Nafarroako finantzatzaileak





Beti aurkituko duzu
gure atea zabalik



Gaztempresa
FUNDAZIOA

900 10 11 43
www.gaztempresa.com

bizkaia@gaztempresa.com
gipuzkoa@gaztempresa.com
alava@gaztempresa.com
navarra@gaztempresa.com



Gaztempresa

FUNDAZIOA

HAY OTRA FORMA BADA BESTE MODU BAT

Aurkibidea

1. Lehendakariaren gutuna
2. GAZTEMPRESA, nor garen
3. Osatzen duten pertsonak
4. Jardun-lerroak
 - Enpresak sortzea
 - Enpresak sendotzea
 - Ekintzailletza sustatzea
5. Gaztempresa komunitatea



“

Gure gizarteak aurrerapausuak eman ditzan zure etorkizunaren parte aktibo izan nahi dugu.

”

Lehendakariaren gutuna

Beti geratzen da emateko aurrerapausu bat

Gure fundatzaile José María Arizmendiarrietaren esaldi hau Euskadiko Kutxa – Ipar Kutxan etengabe errepikatzen ari gara, gure exijentzia bokazioa eta Mondragon kooperatibaren helburuak dituen fusionatu berri den erakundearen proiektuarekin konpromesua laburbiltzeko: enpresen garapena eta lanpostu kooperatiboaren sormenaren bitartez gizartearen aberastasuna sortzea.

Gaztempresak garrantzi handia du helburu honen lorpenerako bidean.

Egoera zail hontan, enpresa ekimenak dituzten pertsonekin elkar lan egiteko apustua mantentzen dugu, ez bakarrik finantzamendua eskainiz, baita ere beraien proiektuen garapenean lagunduz. Ez da kasualitatea gure kutxa, orain Laboral Kutxa izenaz, enpresa ekimenak dituzten pertsonen hizketakide izatea.

Kooperatiba hontan lan egiten dugun taldeek berezko kontuz egiten dugu lan, kooperatibaren bazkide izanik soberan dakigu gure lanpostuak mantentzea gure esku dagoela, autoenplegu proiektuak aurrera eramaten dituzten ekintzaile guztiek onartzen dituzten arriskuak dira. Gainera, gure inguruan lan postuak sortzeko gaitasuna gure kutxa kooperatibo izaera barnean dagoen balio korporatiboetarikoa bat da. Gure ADN kooperatiboari loturik dauden balio kulturalak direla esan ohi dugu.

Adierazpen hauek ez dute sinesgarritasunik babesten dituzten datuek bermatzen ez badute. Gaztempresako proiektuaren 2012ko datu orokorrak argiak eta sendoak dira: Nahiz eta krisiak jarraitu eta honen izaera gogorra, 892 ekintzaileen premiei erantzun diegu eta 427 diagnostiko egin ditugu. Ideia eta ilusioak bideragarriak izateko lagundu, eta 211 enpresa berrien jaiotzei laguntza eta babes eman diegu, 384 lanpostu berriei irteera emanez.

Emaitzak garrantzitsuak dira lortu dugun arrakasta eta esfortzu dimentsioa azaltzeko, baina ezin dugu ahaztu ekimen bakoitzaren atzean ekintzaile baten bizi-proiektu bat dagoela, abiarazte lan gogor batekin, bereziki gaurko merkatuaren baldintza zailetan. Gaztempresan beti dauzkagu ateak zabalik behar bat edo ideia

batekin guregana jotzen duten pertsonentzat. Ekintzaileen beharrianak bide egokira bideratzeaz kezkatzen gara, arrazoia eta ilusioa ongi moldatuz. Esperientziadun gidari parera onartzen dugu, aholkuak eta gogoia emanez, baina protagonisten proiektuetan eraginak dituzten erabaki hartzeak errespetatuz eta autonomi eta askatasun osoa eskainiz.

Ekintzaileak laguntzeko parte hartzaile desberdinen baterako lana guztiz beharrezkoa da.

Laboral Kutxako Araba, Bizkaia, Gipuzkoa eta Nafarroako bulego sareko profesioaletatik hasita eta departamentu zentralako lankideekin jarraituz, gogoz eta ahaleginez egiten dute lan inor modu egokian entzun gabe geratu ez dadin, ideia bat bera ere babes gabe geratu ez dadin eta martxan dauden proiektu bideragarriek aholkularitza falta izan ez dezaten.

Beste ezinbesteko oinarri bat, erakunde kolaboratzaileen partetik kalitatezko arreta eskaintzea da, batez ere Bultz Lan erakundetik, beraien zeregin profesionala etengabe erakustez gain, ideia berriak bidean jartzeko arriskuak hartzen dituzten pertsonenganako gertutasuna erakusten baitute.

Bestalde, ezin dezakegu ahaztu Eusko Jaurlaritzako enplegu eta gizarte sail, Lanbide eta Europako Gizarte Futsako goi arduradunek erakutsitako sentsibilitatea, eta MONDRAGON Fundazioaren laguntza ekonomikoa eta etengabe erakutsitako kemena ekimanerekiko parte hartzean.

Laboral Kutxatik Euskadiko Kutxa eta Ipar Kutxaren bat egitea azaltzen dugunean, behin eta berriz errepikatzen dugu gauzak modu desberdin batean egiteko momentua dela. Beste era bateko banka bat eginez, onurak eragin ditzakegu nahasita dauden pertsona guztiegan, zein bazkide, lankide, bezero edo gure baterako gizarte osatzen duten pertsonak izan.

Gizartearekin konpromesu bat duen banka arduratsu eta hurbil bat, pertsonak lehendabiziko ardura dituen eta azken helburua gure gizarte garatzeko laguntza eskaintzea duena. Gaztempresa fundazioaren bitartez enpresa ekimen berriei ematen den laguntza eta babes, gizarte eta enpleguarekiko konpromesu hautemangarria eta zehatza da.

Nahiz eta autoenpleguaren laguntzan lidergo postetuetan kokatzen gaituzten emaitzak ditugun, ekitaldi bakoitzeko emaitzak hurrengo urtean gainditzeko erronka bezala kontuan hartzen ditugu.

Gaztempresa

Gaztempresa Fundazioa erakunde pribatua da, irabazi-asmorik gabekoa. Euskadiko Kutxaren gizarte-ekintzaren barruan txertatuta dago, eta hauxe du helburu nagusia: enplegua sortzeko eta enpleguari eusten laguntzeko ekimenak sustatzea eta ekintzak bideratzea. Horretarako, hainbat programa eta zerbitzu antolatzen ditu, bere erabiltzaileen, erakunde aliatuen eta, oro har, gizartearen enpresa eta lanbide arloko garapenari balioa emateko.

Honako hauei begira dihardu Fundazioak:

- Pertsona ekintzaileak, batik bat gazteak.
- Lan arloan eta gizarteaz zailtasunak dituzten pertsonak eta taldeak.
- Mikroenpresa gazteak, garapen-proiektuak lantzen dituztenak.
- Ikasleen artean ekintzailetza sustatu nahi duten formazio-erakundeak.
- Euskadiko Kutxa beraren bulegoak



Nor garen?

Patronatua

Xabier Eguibar

Jon Emaldi

Ibon Urgoiti

Jose M^a Usatorre

Koldo Aizpurua

Pello Ugalde

Javier Cortajarena

Iñaki Armentia

Gure boluntarioak

Jose txu Urrutia

Susana Andrés

Alex Gómez

Pilar Crespo

Alvaro Libano

Iker Etxebarrieta

Aitor Berlanga

Jokin Longarte

Pero M^a Jiménez

Juan María Osteriz

Arantxa Olaizola

Iñaki Urtasun

Aitor Azpiazu

Iñaki Zamorano

Ibon Otaegi

Ainhoa Azurmendi

Javier Larrañaga

Fernando Reparaz

Eduardo Elizalde

Borja Gárate

Ander Toña

Eñaut Erdoiza

Jardun-lerroak

1. Enpresak sortzea
2. Enpresak sendotzea
3. Ekintzailletza sustatzea



Enpresak sortzea

ESKAITZEN DUGU

Aholkularitza-zerbitzuak

Imajinatzen duzu aholkulari tekniko eta kudeatzaile pertsonal bat izatea kosturik gabe eta zure proiektu berriaren zerbitzura?

Finantzaketa-plana

Jarri abian zure enpresa berria, behar duzun babes ekonomikoarekin.

Aukerak zure negozioarako

Ireki da zure negozioa, eta baita aukera berriak ere Gaztempresa Sarearekin.

Consulting – PRO zerbitzua

Zure negozioarako laguntza izateak ematen duen lasaitasuna.

Helburu orokorra

Enpresa ekimenen garapena sustatzea negozio ideiak dituzten eta autoenplegutu nahi duten pertsonen artean.

211

enpresa
sortu ditugu
2012an

389

lanpostu
sortu ditugu
2012an

2012AN SORTUTAKO ENPRESAK

ARABA	66
BIZKAIA	78
GIPUZKOA	41
NAFARROA	26
GUZTIRA	211

2012AN SORTUTAKO LANPOSTUAK

ARABA	127
BIZKAIA	153
GIPUZKOA	66
NAFARROA	43
TOTAL	389



Entzun eta laguntzen zaitugu,
zurekin konpromesu bat hitz
emanez.



© 2012 Agneco, S.A. - Euzkadi

3.000

ENPRESA INGURU
SORTU DITUGU

5.000

LANPOSTU BAINO
GEHIAGO SORTU DITUGU

Programaren bikakera

Gaztempresa 1994. urtean sortu zen, eta gaurdaino, **2.993 enpresari lagundu die**, eta, laguntza horri esker, **5.374 lanpostu sortu dira**.





2012ko
profila

Ikasketa
maila

36

urte batez beste

%73

unibertsitateko
kanpokoak

%50
gizonak

%50
neskak

%27

unibertsitateko
ikasleak

Lan egoera

Forma
juridikoa

%45
aktiboak

%7
koop



%60
indibiduala

%55
langabetuak

%17
OE

%16
S.M.

SEKTORE JARDUERA



61 (milaka eurotan)
inbertsiotan,
batez beste

2012an, 61.000 euroko inbertsioa egin da, batez beste, enpresa berriak abian jartzeko.

35 (milaka eurotan)
mailegutuan,
batez beste

2012an, 35.000 euroko mailegua behar izan da, batez beste, enpresa-proiektuak gauzatzeko.

Enpresak sendotzea

Negozio bat abian jartzea lan gogor eta korapilatsua izaten da. Horregatik, ekimena abian jartzeko prozesu horren ondoren, ahalegin eskerga horren emaitzak sendotzeko garaia etortzen da. **Zeregin horretan, Gaztempresaren laguntza dute enpresaburuek, enpresa berriak merkatuan sendotzea baitu jardun-lerro nagusietako bat.**



Zure proiektua finkatzen laguntzen dizugu. Esfortzu eta ahaleginaz momentu zailak gainditzen ditugu.







Enpresak sendotzeko, laguntza hauek ematen ditu Gaztempresak:

1. Enpresak sendotzeari buruzko tailerrak eta mintegiak, enpresen arabera egokituak.
2. Enpresetarako aholkularitza espezializatua.
3. Interneteko "Sare Sozial" bat, aukera hauek ematen dituena:
 - Interneten presentzia izatea.
 - Beste enpresa batzuekin harremanetan jartzea.
 - Gaztempresarekin harreman zuzena izatea.
4. Consulting Pro zerbitzua, enpresetarako kontsulta telefonozenbakiaren, webgunearen, newsletterren eta mintegien bidez, enpresek aukera dute beren zalantzak argitzeko, lan arlokoak nahiz zerga arlokoak, baita negozioaren kudeaketari loturiko beste edozein arlotakoak ere, hala nola kontratuei, diru-laguntzei eta abarri buruzkoak.

Enpresaburu berriei eguneroko lanean hartu beharreko erabakietan lagundu nahi diegu, bide hauetatik:

1. Norberaren ikuspegia eta erabakiak beste batzuenekin erkatzea.
2. Norberarenaz bestelako ikuspuntuak kontuan hartzea.
3. Beste enpresa batzuekiko harreman horizontal nahiz bertikalak erlazionatutak ekintzak
4. Irtenbide egokiak, finantza-baliabideak injektatzetik harago.



EGINDAKO TAILER KOPURUA	34
-------------------------	----

PARTE HARTZILE KOPURUA	207
------------------------	-----

ENPRESETARAKO AHOLKULARITZA	41
-----------------------------	----

AHOLKULARITZA KONTSULTAK	330
--------------------------	-----

EGINDAKO MINTEGIAK	14*
--------------------	-----

* 493 Enpresek parte hartu dute.

Honako gai hauek landu dira:

- Datu babesa
- Fakturatze oinarritzko tresnak..
- Oinarritzko kudeaketa eta kontrola ostalaritzan
- Oinarritzko kudeaketa eta kontrola ostalaritzan
- Gozotegien abiaraztea.

Gaiak:

- Inbertsio berrien ekimena
- Itxiera erabakiak
- Laguntzak eta diru-laguntzak.
- Merkatuaren aldaketa eta ekimen berriak gauzatzeko beharrezana.

Gaztempresa

FUNDAZIOA

HAY OTRA FORMA BADA BESTE MODU BAT

GAZTEMPRESA SAREA

Sorturiko enpresei eskainitako zerbitzuetan berrikuntzak egiten jarraitzeko, "Sare Soziala" da gure proposamen interesgarrietako bat.

Plataforma honen bidez, abantaila hauek eskaini nahi dizkiegu ekintzaileei:

- Interneten presentzia izatea eta sarea beren negozioen publizitatea egiteko erabilteza.
- Harremanetan jartzea beste enpresa berri batzuekin, lankidetzara edo transakzioak gauzatzeari begira.
- Gaztempresarekin harreman iraunkorra izatea eta Fundazioarekiko harremanetan protagonismoa izatea.

1.269

pertsonatik gora erregistratua



“

Esperientziak, kontaktuak eta informazioa konpartitzen den sare onlinerako sarbidea izango duzu. Bat egin nahi duzu?

”



Ekintzailtza sustatzea

Babesa eskaintzen diegu ikasleen artean ekintzailtza eta **berrikuntza-proiektuak sustatu nahi dituzten unibertsitateei eta lanbide-heziketako zentroei, diru-laguntzen eta ekimen espezifikoaren bidez**. Era berean, babesa eskaintzen diegu autoenplegua lanerako beste aukera bat dela ez dakiten langabeei.



kontaiguzu zure proiektua eta
abian jartzen lagunduko dizugu.





Esfortzuaren kulturen eta batera laneginez sortutako aukeretan sinesten dugu.



MONDRAGON UNIBERTSITATEA

EKITEN: Enpresa Ideien Lehiaketa

- 48 ideia berritzaile aurkeztu ziren eta 154 ikaslek parte hartu zuten.
- Saritutako proiektuak:

1.saria Garbikode proiektuari eman zaio, atez-ateko hondakinen bilaketa sistemaren eragozpenei erantzun eta konponbide bat emateko sortu den zerbitzuari. Barra- kodeak dituzten hondakin poltsen garapenean oinarritzen da, hondakin poltsa kontainerrean erregistratuta gelditzean, enpresak birziklapena modu egokian zeinek egin duen eta zeinek ez kontrolatu dezakeelako. 100€ko sariaren irabazlea María Ruiz Amurrio da, industria diseñuko ingeneritza teknikoko ikaslea.

2.saria Kuungana interneten aurkitzen den merkatuguneari eman zaio. Bertan bazkideak edo partnerrak aurkitu, proiektu taldeak sortu eta martxan jartzen diren enpresa berriak dituzten errokeei irtenbidea aurkitzeko tresna eta baliabideak erabil daitezke.

Sari honen irabazleak LEINN-en lau ikasle dira: Ander Iturriagaitia, Juan Zubiaurre, Jon de Andrés y Mikel De Juan.

3. saria Biltegi, itzultze eta ontzi arinen bilketa Espainian proiektuak eraman du hirugarren saria kategorian hontan. Batetik, enpresak eskainiko duen zerbitzua ontzi arinen bilketa selektiboa bai etiketa sistema eta bai vending makina itzulgarrien bitartez (alokairuan).

Gainera erabiltzailea ez dago behartuta ontziaren itzulpena erosi duen denda berean egitera eta enpresa arduratuko da denden arteko biltegiaren ordainaren kudeaketaz.

Proektuaren sortzaileak Industria Antolakuntzaren Ingeniaritzako lau ikasle dira: Mikel Larrea, Aitziber Guruçeaga, Xabier Agirre eta Myriam Soto.

UNIVERSIDAD DE NAVARRA - TECNUN

Kirol Asmakizun eta Diseinuaren V. Lehiaketa:

- Lehiaketa honen bidez, sorkuntza eta ideien garapena sustatu nahi dira.
- Talde-lana eta ideiak sortzeko tekniken erabilera sustatzen du.
- Espiritu kritikoa sustatzen du, produktuak hobetzeko.
- Marrazketako tresna informatikoen erabilera sustatzen du.

Saritutako proiektua: "elur bisutsen aurkako betaurrekoak kamara bat gehiturik":

- Miriam Dendaluce Fdez. de Antona
- Sara San Sebastián Navascues
- Leire Zabala Uranga

Gaztempresaren laguntza formakuntza hitzaldi, mintegi eta enpresa ekimenei buruzko leiharketan bitartez.

Gaztempresa
FUNDAZIOA

HAY OTRA FORMA BADA BESTE MODU BAT

LABORAL 
kutxa